

1999KO APIRILAREN 30EAN GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeitahamar

HILABETEA: Apirila

URTEA: Mila bederatziehun eta laurogeita hemeretzia

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak eta berrogeita hamabost.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Lau (4)

MAHAIBURUA: Jon Jauregi Bereziartua

BILDUAK: Arantza Aseginolaza Azkargorta

Jose Luis Elorza Mujika

Jose Ignacio Insausti Mujika

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1- AURREKO AKTA

1999ko apirilaren 14ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

2- FAKTURAK

26.046.490 pta.ko zenbatekoa duen faktura-sorta aztertu da eta aho batez ondorengo erabaki da:

Lehenik.- Aipatutako sortan sartutako faktura bakoitzaren eta guztien gastua onestea.

Bigarren.- Faktura horiek dagozkien hartzekodunei ordaintzeko agindua ematea.

3.- OBRA ZIURTAGIRIAK

a- Eguneko Zentroari buruzko obren lehen ziurtagiria

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 1.010.572 pezetako Eguneko Zentroari buruzko obren lehen ziurtagiria.

b- Telefonikako bidegurutzearen obrei buruzko lehen ziurtagiria

Hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da 2.771.022 pezetako telefonikako bidegurutzearen obrei buruzko lehen ziurtagiria.

4- OBRA ADJUDIKAZIOA

Construcciones Antzibar enpresak Aratz-Matxinbenta frontoi estaliaren birmoldaketa obrak kontratatzeko aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, hirigintza batzordearen aldeko txosten izanda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Aipatutako obren kontratazioa Construcciones Antzibar enpresari 20.994.135 pezetako (126.177,29 euro) zenbatekoarekin adjudikatzea, ondorengo zehaztasun hauek kontuan hartuz:

- Egikaritze epea hiru hilabetekoa izango da da zuinketa akta jasotzen denetik kontatzen hasita.

- 897.172 pezetako behin-betiko fidantza aurkeztu beharko du.

5- LIZENTZIA

Kontuan izanik, Angel Muñoa jaunak egindako eskaera gasolinera iharduerako lehen eraikinari lehen okupaziorako baimena emateko eta ikusirik hirigintza batzordeko aldeko txostena, aho batez onartu da, Angel Muñoa titularra den gasolinera-iharduera garatzen den eraikinari lehen okupazioarako baimena ematea.

6- JAIK

Aldez aurretik kultur-batzordearen aldeko txosten izanda, 1999ko Loinatz jaietarako egitaraua eta 13.885.000 pezetako aurrekontua onetsi da.

7- PREMIAZKO PUNTUA: TAXIAK

Bildutakoek aho batez horrela erabakita, ondorengo puntua eztabaidan jarri da:

Auto-taxiari buruzko bi baimen etenda uztea.

Ezagutzera eman da, Beasaingo herriko taxisten elkarteak egindako eskaera, hau da, Ramón Uranga Mendizabal jaunak 1999ko apirilaren 23ko sarrera erregistroa duen idatzian eta Beasaingo herriko taxisten elkartearen ordezkari, 2 eta 8 zenbakia duten auto-taxiari buruzko baimenak etenda uztea eskatu du. Baimen horien titularrak hurrenez hurren Francisco Albisu Aseginolaza eta Felipe Abenti Braco dira eta denbora gutxi barru jubilatuta egin behar dira. Gobernazio batzordearen aldeko txostena izanda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2 eta 8 zenbakia duten auto-taxiari buruzko baimenak etenda uztea eta horren ondorioz beraien **transmisioa ez baimentzea, Beasaingo herriko taxisten elkartearen esku gelditzen direlako**, Gipuzkoako Foru Aldundia prestatzen ari den Egitasmo Estrategikoa indarrean sartu arte eta beraien beharra dagoela ziurtatu arte. Kasu honetan aipatutako elkarteak baimena izango du berriro ere martxan jartzeko.

Bigarren. Ebazpen honen berri Beasaingo herriko taxisten elkarteari ematea.

8- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu

Eta tratatzeko beste gairik ezean bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.